

MARTXA BATEN AZKEN NOTAK

Enegarren aldiz hurbildu zen Xiker Igartubeitiko mandioko leihora goiz goibel hartan. Bere buruarekin harriturik zegoen oso; izan ere, gau osoa esna pasa arren, ez zuen begiak lotzeko aparteko beharrik somatzen. Taldeko gainerako kideak mandioan etzanda zeuden; lotan, denak ere. Luze jo zuen gauak, eta egunak ere ekarriko zuen buruhausterik, baldin eta polizia epailearen agindua betearaztera etortzen bazen bederen, zurrumurru guztiek ziotena betez, bestalde.

Kinka larrian zegoen, inoizko larrienean ziur aski, mendetan zehar bizitzeko modu baten ikur eta eredu izandako Igartubeiti baserri zaharra. Garapenaren oihartzunak itsuturik, eskualdea biziberritzearen aitzakian, baserri zaharra eraitsi eta "garai bateko bizimoldearen testigantza" jasoko zuen parke tematiko bat eraiki nahian tematu ziren agintariak. Ordura arteko bisitari kopurua halako zazpi jasoko omen zituen ITP (Igartubeiti Theme Park) berri eta ponposoak, inguruko paisaia erabat antzaldatuko bazuen ere, aurretik zer-non zegoen gogoratze hutsa ia ezinezko bilakatuz. Parke tematikoa, erraldoia bai, baina baserri zaharrarentzako lekurik gabe. Noren buruan kabitu zitekeen halakorik?

Herrian zitzu batean hedatu zen proiektua abian jartzekoak zireneko albistea, berehalako ekaitza iragartzen duten laino ilunek ortzimuga erabat betetzen duten abiadura berean. Ia inor ez zegoen proiektuaren alde, eta ia inork ez zituen "herrian lanpostu asko sortuko ditu" bezalako amuak irensten. Lehenago ere hamaika aldiz entzun zituzten herrian halako promesak, eta azkenean... zakurraren putza: geroz eta gazte gehiago zihoan herritik ihesi, hirigunera ez ezik baita atzerrira ere, ustezko etorkizun hobe baten bila...

Leihotik aldendu eta mugimendua somatu zuen Xikerrek kideak lotan zeuden mandioko txokoan. Bezperan, nork bere lo-zakua txukun-txukun kokatu eta berandu lotaratu ziren, biharamunean etorriko omen zen poliziari nola aurre egin erabakitzen ordu luzeak eman ostean. Helburua argia zen: Igartubeitin ahalik denbora gehien irautea. Irautea: ez zen erraza izango, baina ezin zuten besterik gabe besoak gurutzatuta geratu, hondeamakina zaratatsu batek Igartubeitiko dolarea nola irensten zuen kanpotik begira. Ez, hori ez zetorren euren izakerarekin bat, inondik ere. Igartubeitiren patua hondeamakina baten atzaparretan bukatzea bazen, bazenez, izan zezala bere azken arnasak, gutxienez, oihartzuna.

"Igartubeiti baserriaren arrastoa luzea izan duk historian zehar eta ez dik horrelako amaierarik merezi!", oihukatu zien Xikerrek kideei baserriaren etorkizuna kolokan zegoela jakin bezain pronto, egoera aztertzeako antolatu zuten estraineko bilera haietako batean. Herritarrek ez zuten ulertzen agintarien gehiago-nahi hura, eta "hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia iritsi zela" bota zuen, besteak beste, batek baino gehiagok bilera hartan.

Atzean geratu ziren Igartubeitin Igartua sendiko kideak bizi ziren garai aspaldiko haiek, behin ataka hartara iritsita historiaurrekoak ziruditenak, zinez. Domingo, Kattalin, Martin Beitti txikia... ahanzturaren putzu sakonean galdutako pertsonaiak ziren guztiak, aurrerapenaren zurrumbilo ero hartan. Istorioak eta kondairak,

berdin benetakoak zein asmatuak, Igartubeitiko sorginak eta sineskeriak... Baita urte askotan Igartubeiti eta bertako ondarea bisitarietara erakustez arduratu izan zen museoa ere, neurritz egokia bezain gaitasunez aparta. Azken boladan hiltzorian dagoen gaixo baten lanturuak ziruditen dolare zaharraren egurrezko egituraren kirrinka hotsak. Eta gaixo haren malkoak, sagar zakukada bakoitzari erauzitako zuku tantoak. ITP erraldoiak ez zuen dolare zaharrarentzat lekurik aurreikusten, argiz eta dizdiraz jantzitako panel koloretsuetan ez bazen, noski.

Haserako beroaldi eta aparraldiaren ostean, ordea, herriko mugimendua itzali egin zen, apaldu, baretu. Hitzetatik ekintzetara pasatze hura nola gauzatu asmatzea ez zen hain erraza, eta gizakiak berezko duen babeserako joera nagusitu zen herritarrengan, baita etsipen ekidinezina ere. Inork ez zuen benetako pausorik ematen, eta ITP makroproiektuak bere bidea jarraitu zuen inolako oztoporik gabe, elizako horman eta herriko pilotalekuko frontisean jarritako pankarta eta egindako pintada bakanen bat gorabehera. Igartubeitiko afera albora utzita, bazuten herritarrek bestelako buruhausterik ere, nork bere etxetik hasita... Agian ez zen uste bezain luzea Igartubeitiren itzala, eta agian ez zen hainbesteko erokeria, agintarietara proposatzen zuten ITP proiektu faraoiko hura...

Herritarren gogoak zalantzen itsasoan itotzekotan zegoen une hartantxe etorri zen, baina, ITP proiektuari hobekien aurre egingo zion neurria: herriko gazteek, Xiker, Amaia, Peru, Aratz eta Idoia buru, Igartubeiti baserria bera herri mugimenduaren topagune bilakatzea erabaki zuten. Orduantxe, etsipena azkeneko itzaropen izpia itzaltzekotan zegoen unean hain juxtu.

Komunikabideetan oihartzun zabala izan zuen herriko gazteen ekimenak; zentzu negatibo xamarrean, bistan da. "Gazte errebelde batzuk Igartubeiti *okupatu*" omen zuteneko leloa bizkor hedatu zen lau haizetara, nahiz eta herritarrek, gehientsuenek behintzat, begi onez ikusi bertako gazteen azken ahalegin desesperatua.

Poliki-poliki, gazteek Igartubeitin bizitzeari ekin zioten; gazteek euren bilakatu zuten Igartubeiti, bestela esanda. Lozorrotik berpiztu egin zen baserri zaharra, negu beltz eta iluna kobazulo sakon batean etzanda pasa duen hartza, udaberriaren usainean, hankak luzatzen eta lorratzak uxatzen hasten den modu berean. Ataritik hasi eta mandiora, sukaldia, logelak, ikuilua... baita baserri aurreko baratzea bera ere: punta batetik bestera, bidean txokorik utzi gabe, bizitzaz bete zuten Igartubeiti, goitik behera, herriko gazteek. Egun haietan etengabekoak izan ziren joan-etorriak, tramankulu, gailu, materiale eta gainerako garraioak. Kolpeak, hotsak eta zaratak. Ez baita erraza gauetik goizera horrelako aldaketa bat egitea. Dolare zaharra bera ere, ITP afera lehertu osteko tartean geldirik egona, berriro martxan jarri zuten gazteek, inguruko baserrietatik sagar zakukada zenbait bildu eta zampaketa sinbolikoak izango ziren haiek abian jarri.

Errepide nagusitik Igartubeiti eta inguruko baserrietara igotzen zen bidean ez zen inolako ibilgailuren arrastorik. Xiker eta Amaiaren begiradak gurutzatu egin ziren, elkarri adiskidetasun keinu bat egiten zioten bitartean. Kanpora begira lasaitasun irudia ematen saiatu arren, bazekiten, jakin, barrutik arduratuta zeudela oso,

hondeamakina gupidagabe batek kareletik bota baitzezakeen denbora gutxi barru, goiz hartan bertan ziurrenik, azken hilabeteetan egindako ahalegina eta jarritako ilusio guztia.

Duela zenbait mendetako bizimoldearen eta egungo ohituren uztarketa ez zen erraza izan Xiker, Amaia eta besteentzat, Igartubeitin bizitzen jarri eta lehenengo asteetan. Igartubeitiko sukaldeak ez zuen beste edozein etxetako sukalde baten erosotasunik. Ezta logelek ere. Azkenean mandioan lotaratzen amaitu zuten, halamoduzko lastaira batzuk lurrean bota eta nor bere lo-zakuan uzkuratutik. Baratzea, berriz, itxura ederra hartuz zihoan hilabeteak aurrera joan ahala, eta haseran ereindako barazkiak jasotzen ere hasiak ziren ordurako Igartubeitiko maizter berriak. Denboraren makinan sartu eta hiruzpalau mende atzera egin balute bezala sentitzen hasiak ziren azkenerako, horrelako sentipenek dakarten gozotasunarekin. Hitzaldiak, kontzertuak, dokumentalen proiektzioa... eta baita antzezlan baten antzezpena ere. Agerpen kultural ororen topaleku bilakatu zuten gazteek Igartubeitiko dolare zaharra. Taupa eta taupa, bizirik zegoen berriz ere baserri zaharraren bihotza.

Errepidetik harrabots sendo baten lehenengo zantzuak heldu ziren Xiker eta Amaiaren belarrietara. Ordurako, lo-zakuak baztertu eta halamoduzko lubaki bilakaturiko mandioko leihoaren parean zeuden beste kideak ere, errepideko bihurgunetik zer hurbilduko, Igartubeitira nor agertuko. Poliki zetorren segizioa; poliki, baina zaratatsu. Polizia kotxe pare bat aurretik, eta hondeamakina baten faltan, bi. Segizioaren gibelean, polizia furgoneta handiago bat.

Haserako harridura eta amorruari gain hartu ezinean pasa zituzten gazteek minutu bat, bi eta baita hiru ere, mandioko leihotik errepideruntz begira, begiak segizioan iltzaturik. Laugarren minuturako, ordea, elkarri hitzik esan gabe, mututasunetik ekintzara igaro ziren, modu bat-bateko baina harrigarriki koordinatuan. Peruk mandioko kutxa zaharrean okasio berezietarako gorderik izan ohi zuen bibolina hartu eta errepidetik zetorren harrabots geroz eta sarkorragoa isilarazi nahian, arkua astintzen hasi zen, nota bat, beste bat eta beste bat, elkartasunerako deia baizik izan ezin zitekeen doinu eder bat osatu arte. Mandioan oraindik ere pilaturik zeuden sagar zaku zenbait hartu eta sagarrak dolareko askan barreiatzeari ekin zioten gazteek, Peruren bibolin doinuek hartara bideratuta. Bibolin doinuak, baserriaren kanpoaldetik zetorren harrabotsa eta pisoien kolpe hotsak, sagarrak banaka zanpatuz. Ahalik bizkorren oholak bata bestearen gainean kokatu eta apotearen gainean hartu zuen atsedean baserriak, ikuilutik torloju birakariari eragin ahala. Jasangaitza bilakatu zen kanpotik zetorren harrabotsa, polizia kotxeen zein hondeamakinen gertutasunak eragindakoa. Igartubeitik negar egin zuen, azkenekoz agian, gazteek torlojuari eragiten jarraitzearekin bat. Peruren bibolin doinuek eta egurrezko egituraren kirrinka hotsak bat egiten zutela esango zuen, ziur aski, kanpoko begirale batek, hondeamakinek euren besoak luzatu ahala.